



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

## IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a  
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

### GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Abestiak eta sinbolismoa:  
hegan egitearen garrantzia  
euskal musika popularrean**

*Marina Landa*

283-290 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.35>



## Abestiak eta sinbolismoa: hegan egitearen garrantzia euskal musika popularrean

Landa M.

*Komunikazioa*  
*mlanda@deusto.es*

### *Laburpena*

Hegan egitearen eta hegaztien inguruko sinbolismoa oso barneratuta dago euskal kulturaren. Horren adibide nagusia “Txoria txori” abestia da, baina Euskal Herriko musika popularrean badira beste abesti asko letretan hegoak edo txoriak baliatzen dituztenak mezua helarazteko. *Gaztea* irratiko zerrendak oinarri hartuta, artikulua honek denboran salto egiten du 2015-2020raino, garai horretan izenburuan sinbolo hauek dituzten abestiak aztertzeko (N=15). Euskal Kantagintza Berritik datorren tradizioak egungo musika popularrean eragina izaten jarraitzen duela dirudi, eta, horrezkero, sinbologia hau bertako musikan errotuta dagoela. Laginaren analisiak adierazten du sinboloen egungo erabilerak balio indibidualei erantzuten diela, kolektiboari baino.

Hitz gakoak: euskal musika popularra, komunikazio musikala, sinboloak, euskal kultura

### *Abstract*

*The symbolism around flying is deeply rooted in the Basque culture. The main example of this is the song “Txoria txori”, but there are many other popular songs in the Basque Country that use words related to the wings or the birds in the lyrics to communicate. Based on the accessed lists of the radio Gaztea, this article focuses on the importance of those symbols in the current Basque popular music. It analyzes the songs whose titles include bird-related terms that have sounded on the radio from 2015 to 2020 (N=15). This shows that a tradition that comes from the New Basque Song in the 60s is still part of the Basque imaginary. The analysis of the sample suggests that the use musicians make currently about those symbols responds more to an individual perspective rather than to a collective one.*

*Keywords: Basque popular music, musical communication, symbols, Basque culture*

## 1. Sarrera eta motibazioa

Artikulu hau euskal popari buruzko tesi baten lagina da. Tesia 1990etik 2020rako Euskal Herriko musika popularrean mezuen analisisan oinarritzen da, eta komunikazio-arloan bideratzen ari da. Ikerketa diskurtsoaren analisi kritikoan datza, zehazki, *Gaztea* irratian 31 urte horietan zehar gehien entzun diren abestien letren azterketan. Artxiboan sakontzen joan ahala, euskal kulturaren garrantzia handia duen sinbolo bat antzeman da: hegan egitea.

Hegaztien inguruko sinbolismoa hainbat lurraldeetako kultura popularrean ageri da. Hain zuzen, euskal gizartearen oso barneratuta dago. Horren adibide dira arrano beltza, abertzaletasunaren ikurretako bat, eta HAKOBako erakundeek 2016an abiarazitako Euskararen Txantxangorria<sup>1</sup> ekimena. Musika ospetsuan ere islatzen da euskal kulturak sinbolo horiekiko duen harreman estua. Joxan Artzek idatzi eta Mikel Laboak 1974an argitaratutako “Txoria txori” abestia da erreferente, “Hegoak” izenburuarekin ere ezagun egin dena (López, 2011), eta musikari askok bertsioren bidez bere egin dutena. Hainbestekoa da abestiak euskal gizartearen izan duen eragina non Gorka Urbizu musikariak dioen: “ez da ofiziala, baina gure ereserkia da, ez?” (González, 2018: 0:35:33).

Badaude, baina, sinbolismo hau darabilten eta kultura popularrean eragina izan duten beste kanta eta talde batzuk ere (López, 2011); hala nola, 1985ean Itoiz taldeak Bernardo Atxagaren letrekin argitaratutako “Hegal egiten” (Barandiaran, 2018), eta Sorotan Beleren 1993ko “Uxo zuria”. Talde hondarribiarraren izenak berak ere hegazti bat du. Gainera, euskaraz 50 abesti baino gehiago daude izenburuan hegaztiei, hegoei edo hegan egiteari buruzko hitzak dituztenak<sup>2</sup>.

Artikulu honetarako, *Gaztea*-ren artxiboetan egindako kontsulta jarraituz, azken urteotako hainbat abesti identifikatu dira. Zehazki, 2015etik 2020ra bitartean irratian entzun diren euskal bakarlari edo

<sup>1</sup> Euskararen Txantxangorria: [https://www.euskadi.eus/web01-a2lingu/eu/contenidos/noticia/txantxangorria/eu\\_def/index.shtml](https://www.euskadi.eus/web01-a2lingu/eu/contenidos/noticia/txantxangorria/eu_def/index.shtml)

<sup>2</sup> Spotify-ko zerrenda honetan jaso dira hainbat abesti: <https://open.spotify.com/playlist/3ShmsvnPSggP8OQTLpVRi?si=ZmGfY-eXSU-kY9c13Ef4QQ>

taldeen abestiak hartu dira lagin (N=15), edozein hizkuntzatan izanda ere. Hurrengo taulak abestizerrrenda aurkezten du.

**1. taula. Aztertutako abestiak urteka eta alfabetikoki ordenatuta.**

Zenbakia	Abestia	Talde edo bakarlarria	Argitaratze-urtea
1.	Gauetz hontza	Lenao	2015
2.	Hegan	Enkore	
3.	Phoenicoperus	Ken Zazpi	
4.	Belatz	Passepartout	2017
5.	Hegan II <sup>3</sup>	Enkore eta La Basu	
6.	Enarak	Nøgen	2018
7.	Hegalak salgai	Onki Xin	
8.	Hegan	Haxotz	
9.	Mirlo blanco	Shinova	
10.	Reggaean hegan	Vendetta	
11.	Vuelo	Hakima Flissi	2019
12.	Habiak ezpainetan	Serge	
13.	Hegan	Bulego	
14.	Hegan	Zetak	
15.	Hegan edo hilik	Ezpalak	

Lehenik eta behin, ikerketaren esparru teorikoa zehaztuko da; ondoren, artikulua helburuak eta metodologia azalduko dira; horren ostean, analisiaren muina garatuko da. Azken ataletan, ondorio nagusiak eta etorkizunerako planteamendua adieraziko dira.

**2. Gaiaren esparru teorikoa**

Atal honetan, alde batetik, musika popularraren gaineko azalpena emango da. Bestetik, bere komunikatzeko gaitasuna aurkeztuko da. Azkenik, euskal musikaren definizioari buruzko eztabaida mahaigaineratu eta garai esanguratsuenetan bereganatu dituen sinboloak eta diskurtsoak zeintzuk izan diren adieraziko da.

**2.1. Musika popularra**

“Popular” latineko *populāris* hitzetik dator eta herriari dagokiona edo herritik datorrena izendatzeko erabiltzen da, bi esanahi nagusirekin musikan. Batak folklorea edo kultura herrikoia aipatzeko balio du; besteak, arrakastari erreferentzia egiteko. Ikerketa honetan bigarren esanahia hartu da aintzat; hortaz, “popular” pop (Larrinaga, 2014), ospetsu edo ingelesezko *mainstream* hitzen sinonimotzat jo da; hau da, gehiengoak entzuten edota gustuko duen musika. Goialdek azaltzen duenez, terminoak nahas ez daitezten “musika popular urbanoa” erabil daiteke (2013); haatik, ikerketa honetan ez zaio “urbano” kontzeptua gehituko.

Musika popularrak hainbat estilo barneratu ditu historian zehar eta gizartearen eraldaketari oso lotuta egon da beti. Conell eta Gibsonen aburuz, abestiek musikarien zein entzuleen artean arrakasta eskuratzen dute “pop abesti arketipikoek ‘irudizko identifikazioa’ sortzen dutelako” (2002: 71). Hala, popak, identitate kolektiboen nahiz indibidualen sorreran parte hartzea ez ezik, komunitateei ahalbidetzen die euren izaera musikan islatzea (Connell eta Gibson, 2002a). Horrez gain, musika folklorikoa eta alternatiboa ere popular bihur daitezke zirkuitu komertzialetan sartzen badira (del Amo, 2019b; Mota, 2017b), eragina areagotzea dakarrena.

**2.2. Musikaren komunikazio-balioa**

Musikak komunikatzeko gaitasun handia du, are gehiago popularra baldin bada, bere irisgarritasuna eta iritzi publikoa sortzeko aukera handitzen direlako. Soinuek, melodiek, musika-tresnek eta ahotsek komunikatzen dute, letrek ez ezik. Hainbat helburu izan ditzake (zirrara, gozamina, gogoeta, etab.)

<sup>3</sup> “Hegan II” abestia Enkorek La Basurekin egindako “Hegan”-en bertsioa da. Bertan, La Basuk estrofa batzuk gehitzen dizkio eta, hortaz, abestiaren diskurtsoari eragiten dio.

komunikazio-prozesu baten parte den heinean. Prozesu hori masiboa izan ohi denez, pop musikak “esanahi partekatua sortzen ditu, egoera kontziente batetik abiatuta, entzuleak musikarekin identifikatzea lortzen duelako” (Chesebro et al., 1985: 116).

Komunikazio-helburuak bete daitezten, eta hortaz, prozesuak arrakasta izan dezan, musikariaren intentzioak eta entzulearen interpretazioak (mezuaren kodifikazioak eta deskodifikazioak, alegia) bat egin behar dute (Inskip eta MacFarlane, 2008). Hori gerta dadin, Philipp Tagg musika popularraren autore nagusietakoak sinbolo bateratuen, arau soziokulturalen eta entzulearen erantzuteko gaitasunaren garrantzia jaso zuen 1999an (Inskip eta MacFarlane, 2008). Igorleak (musikariak) eta hartzaileak (entzuleak) kultura eta kode komunak izatea ezinbestekoa da (Chesebro et al., 1985; Connell eta Gibson, 2002; Inskip eta MacFarlane, 2008). Zentzu horretan, eta kontuan izanda ikerketa hau letretan oinarritzen dela, hizkuntza-hautuak rol garrantzitsua hartzen du ulergarritasuna edo ulergarritasun-eza ekar dezakeelako.

Kodifikazioak eta deskodifikazioak beti bat egiten ez dutenez, letraren interpretazio oso ezberdinak egin ditzakete entzuleek. Idazteko moduak (esaterako, letra esplizitu edo inplizituak idazteak eta figura erretorikoak edo sinboloak erabiltzeak) interpretazioan eta ulermenean eragin handia du. Horregatik, analisi semiotikoa ezinbestekoa da letra batzuen esanahia azalertzeko. Barandiaranen hitzetan, “gure kantagintza, euskal arima elikatzen duten metaforez lepo dago” (2018: 58), literatura-baliabideek ulermena zail dezaketen arren. Izan ere, musika-idazle batzuek nahita sortu izan dituzte kantak entzuleak uler ez ditzan (Connell eta Gibson, 2002). Edonola ere, horrek guztiak abestien diskurtsoak osatzen ditu eta, arestian azaldu denez, interpretazioa partekatua denean izaera kolektiboan eragina izan ohi du. Horrela, abesti batek esanahi globala hartzen du, nahiz eta ez egin bat letraren idazleak zuen intentzioarekin<sup>4</sup>.

### 2.3. Euskal musika popularraren testuingurua

“Euskal” adjektiboa ere hainbat modutan uler daiteke; sarritan eztabaidatu dute adituek euskal musika osatzen duten soinu, instrumentu, hizkuntza eta estiloen gainean (Sánchez, 2009). Ez dago guztizko adostasunik, baina Ibarretxeren aburuz, ez da ez beharrezkoa ez eta posiblea ere, etengabe aldatzen ari delako (Ibarretxe, 2004).

Historikoki, euskal musikak ikuspegi nazionalista izan du. XIX. mendean, musika herrikoiak euskal balioak sustatu zituen euskal komunitatea “babesteko, hainbat dikotomien bidez: landakoa hirikoaren aurka, tradizionala modernoaren aurka eta propioa kanpokoaren aurka” (Ruiz, 2010: 156), etnizitateak pisu handia izan zuen-eta (Ibarretxe, 2004). Arrietak azaltzen du “euskal nazionalismorako, musikak ezinbesteko rola izan duela identitate nazionalaren sorreran” (2013: 25). Tradiziozko musikan herria eta aberria ziren sinbolo esanguratsuenak, ideologia sortzeko eta identitate kolektiboa, nazionala alegia, eratzeko erabiltzen baitziren (Arrieta, 2013; Saenz del Castillo, 2016).

60. eta 70. hamarkaden bueltan, Euskal Kantagintza Berrian norbanakoaren nahiz taldearen askatasun-mezuak eta salaketa politikoa nagusitu ziren (Aurtenetxe, 2013; Sánchez, 2010). Arestian aipatutako “Txoria txori” abestiak hegaltia askatasun kolektiboaren aldeko mezua zabaltzeko eta injustiziak salatzen darabil. Gotzon Barandiaranek azaltzen duen moduan,

“Euskal kantagintza berriak nazio kontzientzia sortzeko ahalmena erakutsi zuen. Sinboloak sortu zituen eta sinbolo horiek gure imaginario kolektiboa elikatu dute, gogoan iltzatu zaizkigu, gure diskurtso politikoaren oinarria ere izateraino. Horra adibide goren Artzek idatzi eta Laboak musikatutako Txoria txori, askatasunaren eta bakearen sinbolo noranahikoa” (Barandiaran, 2018: 95).

Besteak beste Laboak, Iriondok eta Letek Frankismoaren zentsurari aurre egin behar izan zioten (López, 2011). Testuinguru horretan, metaforen erabilerak gora egin zuen musikan, baina, Bernardo Atxagak dioen bezala, idazle eta musikariek esplizituki helarazi nahi zuten mezua bidaltzeko aukerarik ez zutelako izan zen (González, 2018: 0:34:26).

Frankismoa amaitutakoan, garai berria iritsi zen Euskal Herriko gizartera Trantsizioarekin batera. 80. hamarkadan, Euskal Rock Erradikalean taldeek aberriarekin hautsi nahi izan zuten, alde zurretik barneratuta zeuden sinbolo horien interpretazio ezberdina egiten baitzuten (Saenz del Castillo, 2016). Musikala ez ezik soziala ere izan zen mugimenduan, sistemaren aurkako mezuak nabarmendu ziren,

<sup>4</sup> Mikel Urdangarinen “Non geratzen den denbora” abestiaren kasua da. Oro har, maitasunarekin lotu izan dute entzuleak eta ikertzaiak (Álvarez, 2012), baina intentzioa Felix Iñurategiri omenaldia egitea zen, Jon Maia abestiaren letren idazleak azaldu zuen bezala: [https://twitter.com/maia\\_jon/status/1260855419305680898](https://twitter.com/maia_jon/status/1260855419305680898)

ezker abertzalerako joerarekin (del Amo, 2019b; Mota, 2017a, 2017b). Sorreran kontrakulturaren mugimendua bazen ere, taldeetako asko zirkuitu komertzialetan sartu ziren gizartean izan zuten arrakastagatik; horregatik, egun, horiek musika popularraren arloan koka daitezke (del Amo, 2019b; Mota, 2017b).

Euskal Rock Erradikaletik kanpo badago ere, garai hartakoa da Itoizen “Hegal egiten”, txantxangorriaren eta hegan egitearen bidez barne gatazkez mintzaten dena. Taldeko abeslariak azaldu zuen 2016an *Radio Euskadiko* Boulevard irratsaioan<sup>5</sup> abestiak ez zituela irrati-formulak eskatzen zituen ezaugarriak betetzen, eta, hala ere, arrakasta handia lortu zuela. Abestiak askatasun indibidualaren afera islatzen du, “Txoria txori”-k aurkezten duen askatasun kolektiboarekin talkan. Izan ere, Euskal Kantagintza Berriko nahiz Euskal Rock Erradikaleko abestiek gizabanakoari erreferentzia egiten zioten arren, identitate kolektiboak garrantzi handia zuen eta, batez ere bigarren mugimendu horretan, espizituki komunikatu ohi zen (autodeterminazio-eskubidea, askatasun grina, etab.).

Ondorengo garaia, 1990etik gaur egunera, dibertsitatearen eta poparen garaitzat jotzen da. Askotan eztabaidatu izan dute adituek azken hamarkadetako euskal poparen diskurtsoen sendotasunaren eta hutsalkeriaren gainean. Del Amoren aburuz, egungo musika komertziala, oro har, ez da “zentzua eta identitatea transmititzeko gauza” (2019b: 280) eta “identitate sendoak sortzeko gaitasuna” galdu du (2019b: 289). Zentzu horretan, balio-galeraz hitz egiten da; hori dela eta, musika popularrari “musika arin” ere esaten zaio, diskurtso eza duelakoan. Larrinagak dio euskal popean “indar identitarioa eta sen kolektiboa galtzen doan jite hedonista berezi bat gailentzen ari dela; baina, [...] nahasten duen soinuaz aparte, beste berezitasuna letretan dago, edo, hobe esanda, letrek erakusten duten jarrera ideologikoan” (2014: 249). Hain zuzen ere, “Euskal Herriak bizi izan duen egoera sozio-politiko berezia beti egon da oso loturik euskal pop musikan zabaldu diren joerekin” (Larrinaga, 2014: 249).

Mezu eta esanahiekin jarraituz, Álvarezek (2012) gazteen artean arrakastatsu izandako abestien genero-diskurtsoa ikertu zuen. Bertan jaso zuenez, pop abesti batzuek sexu-harremanekiko mezu positiboak bidaltzen dituzte; harreman erromantikoei dagokienez, aldiz, tristuratik eta bakardadetik bideratzen dira. Hortaz, gazteek mezu kontrajarriak jaso ditzakete, alde batetik, harreman sanoen ereduak dituztelako, baina, bestetik, maitasun ideala eta posesiboa normalizatzen duten abestiak iristen zaizkielako (Álvarez, 2012). Hala, Barandiaranek musikaren komunikazio-balioa azpimarratu du, izan ere, dioenez, euskaldun askok “hizkuntza, lurraldetasuna, askatasuna, aberria, borroka, justizia, klasea eta antzeko kontzeptuei buruzko gure diskurtsoaren zatirik handiena kantuetatik elikatu” dute (2018: 35). Beraz, abesti popular batzuen diskurtsoek diskurtso sorrera ekar dezakete, hizkuntza eta musika baliabide boteretsuak baitira (Eskisabel, 2012).

Diskurtsoez haratago, egungo euskal musika popularrak estilo andana bereganatu ditu, hala nola, popa, rapa eta trapa; eta batzuk fusionatu ere, esaterako, triki-popa. Gainera, helburu ugariri erantzuten dio; Eskisabelen aburuz, “lirikarako zein aldarrikapen sozial eta politikoetarako, olgetarako zein engaiamendurako, tradizio zaharren berreskurapenerako zein berrien sorrerarako” (2012: 11) balio izan du.

Dibertsitatea dela-eta, erakunde bakoitzak “euskal musika” ulertzeko modu bat du. *Badok* atariak euskarazkoa lehenesten du; Eresbil musikaren euskal artxiboak, ordea, euskal adierazpidearekin lotzen du eta euskal konpositoreen sorkuntza oro hartu; *Gaztea* irratiak, azkenik, Euskal Herrian edo euskal sortzaileek egindako musika hartzen du barne, betiere euskarazkoa lehenetsita. Artikulu honek *Gaztea*-ren irizpidea jarraitu du abestiak identifikatzerako orduan; alegia, Euskal Herrian edozein hizkuntzatan egindako musika hartuko da aintzat.

### 3. Ikerketaren helburuak eta metodologia

Testuinguru horretan, egungo musikan hegan egitearen gaineko mezuak aztertzekeo beharra ikusi du ikertzaileak, identitate kolektiboan izan dezakeen eragina azalertzeko asmoz. Hala, artikulua ikertzaileak *Gaztea*-ren artxiboan sakondu ahala planteatutako iker-galdera batzuetatik ateratzen da: Zein esanahi dute sinbolo hauek egungo musika popularran? Zer mezu zabaltzeko erabiltzen dituzte sortzaileek sinbolook? Zer nolako sinboloekin uztartzen dira?

<sup>5</sup> Juan Carlos Pérezi elkarrizketa *Radio Euskadiko* Boulevard saioan: <https://www.eitb.eus/es/radio/radio-euskadi/programas/boulevard/audios/detalle/3998014/txantxangorria-itoiz-juan-carlos-perez-musica-radio-euskadi/>

Galderak erantzuteko, hiru helburu ezarri dira:

- 1) Hegan egitearen inguruko sinbologiaren erabilera ezberdinak mahaigaineratzea
- 2) Sinboloek bidaltzen dituzten mezu edo diskurtsoak adieraztea
- 3) Sinbolo-laguntzaileak identifikatzea

Metodologiari dagokionez, arestian aipatu da artikulua Euskal Herriko musika popularrari buruzko tesi batetik abiatzen dela. *Gaztea* irratian, euskal musika popularraren erreferente (del Amo, 2019a), azken urteotan entzun diren hainbat abestik hegaztiei eta hegan egiteari erreferentzia egiten dietela ikusi ondoren, izenburuan sinbolo horiek dituzten kantak aukeratu dira azterketarako. 2015etik 2020ra (sei urte guztira) hautatu dira abestiak (N=15). Letretan ageri diren sinboloen bilaketa eta mezuen azalartzea, semiotika ardatz hartuta, kodifikazioan oinarritu da. Ikerketa kualitatiborako Atlas.ti softwarearen laguntzaz, kodeen identifikazioa eta haien arteko korrelazioa landu dira. Kodeak bi multzotan antolatu dira; alde batetik, sinboloak; eta, bestetik, sinboloek nahiz mezuek (esplizituki, figura erretorikoen bidez, etab.) adierazten dituzten ideiak (sentimenduak, sentsazioak, etab.).

## 2. taula. Identifikatutako kodeak

Sinboloak	Islatutako ideiak
Denbora	Askatasuna
Gorputz atalak / Fisiologia	Beldurrak / Kezkak / Arazoak
Hegan / Hegoak / Hegaztiak	Elkartasuna
Harremanak	Maitasuna
Hiria	Zoriona
Musika	
Natura	

Sinbolo batzuk behin baino gehiagotan ageri dira abesti berean, esanahi berarekin. Kasu horietan, behin besterik ez dira kodifikatu, ez baita bilatu balio kuantitatiboa, kualitatiboa baizik. Hau da, kodeen arteko loturen adiera hartu da batez ere kontuan. Esaterako, “Phoenicoperus”ek hiru aldiz dio “zaurietatik hegan egin”, baina kodea behin gehitu zaio soilik.

## 4. Ikerketaren muina

Laginaren analisiak hainbat alderdi argitu ditu. Gehien ageri diren sinboloak natura (60), denbora (54) eta gorputzaren (45) gainekoak dira; hegaztien sinboloak baino gehiago dira (30). Sentsazio edo sentimenduei dagokionez, beldur edo arazoak dira gehien errepikatzen direnak (57) eta, ondoren, askatasuna (45). Oro har, abesti hauek barne-gatazkez hitz egiten dute eta askok erabiltzen dute hegan egitearen unea askatasun indibidualaren metafora gisa.

Aztertutako 15 abestiek izenburuan hegaztiei lotutako hiztegia duten arren, sinbolo horiek ez dira nagusi. Esaterako, 2., 5., 13. eta 14. abestiek behin eta berriz errepikatzen dute “hegan” hitza, baina testuinguruak ez du bere esanahia aldatzen. Aldiz, “Belatz”-ek ez du hegaztiekin lotutako sinbolo bat bera ere izenburutik at. Hurrengo taulan ikus daitezke abesti bakoitzak hegan egitearen gainean darabiltzan sinboloak.

## 3. taula. Hegan egitearen inguruko sinboloak abestika

Zkia.	Abestia	Hegan egitearen sinboloak	Sinbolo-motak			
			Hegan egitea	Hegaztiak	Hegoak	Besteak
1.	Gauetz hontza (Lenao)	Hontzak, hegan doa	X	X		
2.	Hegan (Enkore)	Hegan noa, hegan	X			
3.	Phoenicoperus (Ken Zazpi)	Hegoak astindu, errautsak gorantz altxa, hegaldia, hegaztia, hegan egin	X	X	X	X
4.	Belatz (Passepartout)	-				
5.	Hegan II (Enkore eta La Basu)	Hegan noa, hegan	X			
6.	Enarak (Nøgen)	Enarak, hego-haizeari itxويتen		X		X
7.	Hegalak salgai (Onki Xin)	Hegalak ematen dizkio, hegalak ematen zizkion, lumak			X	X

8.	Hegan (Haxotz)	Hegan, hegan noa	X			
9.	Mirlo blanco (Shinova)	Mirlo blanco		X		
10.	Reggean hegan (Vendetta)	Arranoa, hegan hasiera doa, (arranoaren) magalean	X	X		X
11.	Vuelo (Hakima Flissi)	Yo vuelo, y vuelo	X			
12.	Habiak ezpainetan (Serge)	Enarak itzuli dira, habiak		X		X
13.	Hegan (Bulego)	Hegan hasi naiz, hegan	X			
14.	Hegan (Zetak)	Hegan, egin genuen hegan, arrano bat, hego-haizearen esanetara	X	X		X
15.	Hegan edo hilik (Ezpalak)	Hegalak moztea			X	
Sinbolo-mota bakoitza agertzen den abesti kopurua			9	7	3	5

Gehienetan, subjektu bakarrak laguntzen ditu hitz horiek; hots, gizabanakoari egiten diote erreferentzia. Hitzon artean, gehien errepikatzen dena “hegan” da (hegan noa, hegan doa, hegan hasi naiz); singularraren salbuespenetako bat Zetaken abestia da. Hain zuzen ere, *Gaztea* irratiaren omenez idatzi zuen Pello Reparazek, 2020an bai irratiak bai hark 30 urte betetzen zituzten-eta (“90eko bi bala”)<sup>6</sup>. Alabaina, kanta COVID-19aren pandemia erdian argitaratu zutenez, askok konfinamendu-osteko askatasun grinarekin lotu izan dute.

Naturari dagokionez, abesti gehienek itsasoari eta zeruari egiten diete erreferentzia. Erabilerak zentzua du hegaztien gune naturalak direlako. Itsasoa bost abestitan agertzen da; horietako batean, Zetaken “Hegan”-en, “Kantauri itsasoa” zehazten da, gainera. Horrek lurraldetasunarekin lotzen du abestiaren esanahia. Zerua, bestalde, lau abestitan agertzen da. 7.ak “lumak zerutik erortzen dira” dio injustiziaren metafora egiteko; 2. eta 5. abestiek “zerua zeharkatuz” eta “zoru azpitik zerurantz” diote zerua askatasun-gunetzat jotzeko. Zeruan aurkitzen diren bestelako elementuak ere behin baino gehiagotan errepikatzen dira, hala nola hodeiak eta ortzi-muga.

Bestelako guneek ere rol garrantzitsua dute letra hauetan: amildegia, belarra, basamortua, leizea eta hondartzak aipatzen dira, esaterako. Haatik, mendiak, euskal kulturaren sinbolo garrantzitsuak direnak ere, ez dira behin ere aipatzen. Horrez gain, haizea, behe-lainoa eta mundua hirutan agertzen dira. Bestelako fenomeno meteorologikoak ere erabiltzen dira sinbolo moduan (euria, haizetea, ekaitza, elurra). Naturaren gaineko sinboloekin amaitzeko, esanguratsua da beste animalia batzuei letretan ematen zaion lekua: otsoak, arrainak, lukiak eta saguzarrak aipatzen dira.

Abesti gehienek denborari garrantzia handia ematen diote; askok iraganaren eta orainaren arteko ezberdintasunak azaltzen dituzte. Esaterako, 8., 13. eta 14. abestiek denboran bizitako nortasun-aldaketa aurkezten dute. Izan ere, “letrek [...] iraganeko, orainaldiko eta etorkizuneko munduei eta bertatik ateratzeko moduei buruzko gogoetak eskaintzen dituzte” (Connell eta Gibson, 2002: 83). Aipatutako abestietan, hegan egiteko unea aldaketa horrek dakarren baretasunarekin lotzen dute. Preseski, 8.ak hegan egitea arazoen eta ongizatearen arteko talkaren metafora egiteko erabiltzen du. Gaitzetatik eta, dirudienez, gizartetik edo inguruko pertsonengandik, urrunduta, hegan egiteak lasaitasunera darama.

Horri lotuta, Ken Zazpiren “Phoenicoperus” abestiak birsortzearen ideia dakar. Fenix hegaztiaren sinboloaren bidez, Gernikako taldeak askatasun eta eraldaketaren metafora egiten du. Horrela, hegan egiteari esker, hots, su eman ostean errautsetatik berriz jaiotzeari esker, “eztarri erdiko aingura trabatuak” desagerrarazi ahal izango dituzte.

Gorputzari buruzko sinboloak ere adierazgarriak dira kanta hauetan. Gorputz-atalak (begia, bizkarrezurretik, ezpainetan, hestea, zainetan) eta erreazioak (algara, arnasa, izerdi hotza, malkoa) beldur, arazo eta kezkei erreferentzia egiteko erabiltzen dira batik bat, hegan egitearen pertsonifikazio gisa. Zoriona (ametsak, barrea, bizitza gozatzear) eta harremanak (junto a mí, lotura latzenei, zuengandik urrun) ere ageri diren arren, arestian aipatu da orokorrean norberaren arazoez mintzatzen direla abestiak.

<sup>6</sup> Zetak taldearen “Hegan” abestia eta *Gaztea* irratia:

<https://www.eitb.eus/eu/gaztea/musika/osoa/7339965/hegan-zetakek-gazteari-30-urteurrenean-oparitutako-abestia/>

Haatik, abestietako batzuek maitasun erromantikoaren gaineko mezuak bidaltzen dituzte. Hakima Flissiren “Vuelo” pertsona zehatz bati zuzentzen zaio esateko balitekeela bere bihotza irekita egotea baina hark erabaki beharko duela ea ausartzen den berarekin batera hegan egitera. Honek maitasun-harremana gauza dadin askatasun indibiduala eta norberaren izaera mantendu behar direla adierazten du. Lenaoren “Gauetz hontza”-k amodioak sortzen dion frustrazioa azaltzen du: “Zure hitz goxoenak gordetzen dituzu niretako. Zutaz ahaztu egin nahi dut, ez zaitut aurkitzen”. Modu inplizituago batean, badirudi Nøgenen “Enarak”-ek pertsona bati esaten diola ez dela haren zain geratuko, malkoa irentsi du- eta leihoak hausteko prest dago-eta.

Aztertutako abestien artean, kolektibotasuna eta elkartasuna esplizituki agerian uzten dituen bakarra Onki Xin-en “Hegalak salgai” da. “Beldurrak ausardiari hegalak ematen dizkio” esaldiarekin hasita eta abestiaren amaiera aldera datorren “ongi etorri errefuxiatuak”-ekin, hegoak errefuxiatuek lurretik ihes egiteko erabakiaren metaforaren parte dira. Gainerako sinbolo, metafora eta bertsoek ere, errefuxiatuen testuinguruan kokatzen dute abestia: “Lumak zerutik erortzen dira bizitzak itsaso geldoan. Itsasontziak bihotzetatik amildegia isilik zeharkatuz”. Sergen “Habiak ezpainetan”-ek enarekiko nolabaiteko begirunea transmititzen du. Letrak esaten du trena iritsi bezain laster ireki dituztela linea berriak baina, aldiz, egunkariei ez zaila nabarmentzekoa iruditu enarak itzuli izana. Horrela, metaforen bidez hiriaren eta naturaren arteko talka jorratzen du. Alabaina, azken esaldiarekin, “zure ezpainetan habiak egiten utzidazu”, diskurtsoa nahasten da eta ez da guztiz esplizitatzen nori zuzentzen ari zaion.

Azkenik, eta musikaren sinboloek paper nagusirik jokatzeko ez duten arren, aipagarria da “Txoria txori”-ren presentzia agerian geratzen dela letrak aztertu ostean. Zetaken “Hegan”-ek, harmoniari dagozkion sinboloak ez ezik (akorde minor bat), Mikel Laboa aipatzen du “deskarte bat, deskarte zikin bat, Laboaren orrietan” bertsoan. Gainera, Ezpalaken “Hegan edo hilik”-ek zera dio, “hegalak moztea edo hiltzea” berdina dela, eta Artze eta Laboaren abestiak hori zioen, hegoak moztu izan balizkio ez zela txoria izango.

## 5. Ondorioak eta etorkizunerako planteamendua

15 abestiren lagina nahikoa handia ez den arren, egungo euskal musika popularraren sinboloen erabilerara gerturatzeko aukera ematen du. Preseski, hegan egitea, hegoak eta hegaztiak gizabanakoaren barne-gatazkak azaltzeko erabiltzen dira batez ere. Honek “Txoria txori” abestiaren sinbolismoaren erabilerarekin hausten du eta “Hegal egiten”-en eta “Uxo zuria”-ren iruditegia bereganatzen du, non gizabanakoaren arazoak azpimarratzen diren. Horrela, badirudi sinbolo hauen balio kolektiboa ez dela Euskal Kantagintza Berrian bezain nagusi, aditu batzuek balio-aldaketaren gainean duten tesiarekin bat egiten duena (del Amo, 2019b; Larrinaga, 2014). Horren adibide da lagineko lau abestiek sinbologia hau harreman erromantikoak lantzeko erabiltzea.

Hala eta guztiz ere, laginak erakutsi du egungo euskal popean sinbolo hauek askatasunari lotzen zaizkiela, libertate indibiduala bada ere. Aurreko atalean aipatu bezala, hegaztiak aldaketa sinbolizatzen dute eta hegan egiteko uneak aske izatea dakar, minetik urundu eta lasaitasuna edo ongizatea eskuratzeko aukera baita. Hori dela eta, analisiak adierazten du txorien inguruko iruditegiak errotuta jarraitzen duela euskal kulturaren eta musikagileengan, nahiz eta gizartearen balio berrietara moldatu den. Aurretik azaldu bezala, esanguratsua da azpimarratzea sinbolo horiei naturaren (itsaso, zeru), denboraren eta gorputzaren gaineko hitzek laguntzen dietela.

Etorkizunari begira, eta tesiari lotuta, interesgarria izango litzateke sinbolo hauen erabilera 1990etik 2020rako garai osora zabaltzea, bilakaera azalerrate aldera. Tesiaren asmoa, preseski, hegan egitearen gaineko nahiz euskal kulturaren errotuta dauden bestelako sinboloek (itsasoa, mendia) euskal popean duten papera ezagutzea da. Baita alderantziz ere; hau da, mahaigaineratzea sinboloek musikaren bidez izan dezaketen eragina. Horren bidez, euskal popak euskal tradizioarekin duen lotura zer nolakoa den ezagutu ahalko da.

Era berean, ikertzaileak diskurtso- eta sinbolo-analisiari bi aldagai nagusi gehitzeko premia antzeman du: hizkuntza eta generoa. Hortaz, lagin honek eskaintzen duen informaziotik abiatuta, sinboloen esanahia eta erabilera nahiz diskurtso nagusiak hizkuntzaren eta sortzailearen generoaren arabera aldatzen diren ala ez aztertu nahi du. Hala, plazaratu ahal izango da, esaterako, ea Euskal Herriko tradiziozko sinbologiak presentzia bera duen euskaraz edo erdaraz eta emakumeek edo gizonezkoek egindako abestietan.



## 6. Erreferentziak

- Álvarez, A. (2012): “Discursos de género en la música vasca de principio del Siglo XXI. ¿Siguen vigentes los modelos normativos de la mujer bella, el hombre fuerte, las relaciones heterocentradas y el amor romántico?”, *I Congreso de Comunicación y Género*, Sevilla, 22–36.
- Arrieta, L. (2013): “¿Cuál es el himno de los vascos? El nacionalismo vasco y su simbología musical”, *Spagna contemporanea*, 44, 7–27.
- Aurtenetxe, A. (2013): “1970. Hamarkada, kontzertuak euskal zaleen bilgune. Baga biga higa sentikaria espektakulutik jaialdietara”, *Musiker*, 20, 327–341.
- Barandiaran, G. (2018): *Hitzen ahairea. Zeri kantatzen diogu euskaldunok?*, Susa Liburuak, Zarautz.
- Chesebro, J. W., Foulger, D. A., Naghman, J. E., eta Yannelli, A. (1985): “Popular music as a mode of communication, 1955-1982”, *Critical Studies in Mass Communication*, 2(2), 115–135.
- Connell, J., eta Gibson, C. (2002a): “Music communities—National identity, ethnicity and place”, in J. Connell eta C. Gibson (arg.), *Sound tracks. Popular music, identity and place*, Routledge, New York / Londres, 117–143.
- , (2002b): “The place of lyrics”, in J. Connell eta C. Gibson (arg.), *Sound tracks. Popular music, identity and place*, Routledge, New York / Londres, 71–89.
- del Amo, I. A. (2019a). “Lo que suena en Gaztea Irratia. Origen, evolución e influencia social de la emisora musical pública vasca”, *Zer*, 25(47), 13–32.
- , (2019b): *Party & Borroka. Jóvenes, música y conflictos en Euskal Herria* (3. arg.), Txalaparta, Tafalla.
- Eskisabel, J. (2012): “Euskal kantagintza: Pop, rock, folk”, (Zenb. 4; Euskal Kultura Saila), Etxepare Euskal Institutua, 1–82. Eskuragarri: [https://www.basqueculture.eus/wp-content/pdf/N%C2%BA5\\_Musika\\_pop.pdf](https://www.basqueculture.eus/wp-content/pdf/N%C2%BA5_Musika_pop.pdf)
- Goialde, P. (2013): “Música popular/músicas urbanas: Introducción”, *Musiker*, 20, 7–18.
- González, I. (2018): “Gu, Laboa”, telebistan emandako dokumentala, EiTB. Eskuragarri: <https://www.eitb.tv/eu/bideoa/gu-laboa-gu-laboa/6334/151012/gu-laboa-gu-laboa/>
- Ibarretxe, G. (2004): “Fronteras de la música vasca”, *Trans. Revista Transcultural de Música*, 8, 0.
- Inskip, C., eta MacFarlane, A. (2008): “Meaning, communication, music: Towards a revised communication model”, *Journal of Documentation*, 64(5), 687–706.
- Larrinaga, J. (2014): “Ttakun eta scratch, euskal pop musikaren hotsak. Nazio-identitatearen birdefinizioak eta disidentzia kulturalak euskal gizartearen eraldaketan”, tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- López, E. (2011): *Historia del rock vasco. Edozein herriko jaixetan*, Aianai, Vitoria-Gasteiz.
- Mota, D. (2017a): “La música underground vasca en la década de los 90. La hegemonía del rock político y su eclipse a otras escenas musicales”, *Vegueta. Anuario de la Facultad de Geografía e Historia*, 17, 515–543.
- , (2017b): *Los 40 Radikales. La música contestataria vasca y otras escenas musicales: origen, estabilización y dificultades (1980-2015)*, Ediciones Beta, Bilbao.
- Ruiz, N. (2010): “Música y nacionalismo vasco. La labor musical de Juventud Vasca de Bilbao y el uso de la música como medio de propaganda política (1904-1923)”, *Musiker*, 17, 151–210.
- Saenz del Castillo, A. (2016): “El rock radical vasco y las identidades nacionales presentes en el País Vasco durante la transición y primeros años de la democracia”, in C. Collado Seidel (arg.), *Himnos y canciones: Imaginarios colectivos, símbolos e identidades fragmentadas en la España del siglo XX*, Comares, Granada, 297–312.
- Sánchez, K. (2009): “Euskal Folklore-Ikerketa musikalaren hasierak”, (Jokoak, Kirolak eta Folklore-Ikerketa. Jardunaldiak, Basauri, 2008.), *Eusko Ikaskuntza*, 427–445.
- , (2010): “Músicas populares, tradicionales y folclóricas en la sociedad vasca contemporánea”, *Jentilbaratz: cuadernos de folklore*, 12, 95–109.

## 7. Oharrak

Artikulu hau ikertzailea Deustuko Unibertsitateko Giza Garapenerako Aisialdi, Kultura eta Komunikazio Doktoretza Programan burutzen ari den tesiaren lagina da. Autorea Deustuko Unibertsitateko Komunikazio Ikerketa taldeko doktoretza aurreko ikertzailea da. Ingeleseko eta gaztelaniazko itzulpenak euskarara autoreak berak egin ditu.